



TOLOSAKO
UDALA

**TXOSTEN JURIDIKOA: ONARTZEA ONDORENGO LANKIDETZA HITZARMENA
ALDATZEA: 2011KO MARTXOAREN 31AN MIGEL MUÑO A FUNDAZIO ONGILE
PARTIKULARRAREN PATRONATUA , TOLOSAKO FUTBOL KLUBA ETA
TOLOSAKO UDALAREN ARTEAN SINATUTAKOA.**

AURREKARIAK:

2011ko martxoaren 31an, Tolosako udalak lankidetz a hitzarmena sinatu zuen Tolosako Berazubi estadioa birgaitzeko, hurrengo erakunde hauekin: Miguel Muño a Fundazioa eta Tolosa Futbol kluba.

Hitzarmen horren esparruan, Tolosako Udalak konpromisoa hartu zuen hainbat urterako inbertsio ekonomikoak egiteko, bere aurrekontuaren arabera, Berazubi Estadioko instalazioak eta zerbitzuak modernizatzeko eta birgaitzeko obrak finantzatzeko. Jarduera horiek gutxi gorabehera 5 fasetan aurreikusten ziren.

Hitzarmen hori egin eta formalizatzeko arrazoi nagusia honako irizpide izan zen: Berazubi estadio berria Usabalgo kiroldegian ematen diren zerbitzuen osagarria izatea, eta ez egitea inolaz ere lehia hari. Hortaz, kudeaketa ereduak eta gestoreak kointziditu egin behar zuten.

Sinatutako hitzarmenean Tolosako Udalak konpromisoa hartu zuen honako obra-inbertsioak egiteko :

1. fasea: harmaila eta aldagelak. 583.000 €
2. fasea: kirol anitzetako gunek, gimnasioa, padelak..., mendebaldeko zuzena. 180.000€
3. fasea: atletismo pista estalia, eta ekialdeko zuzena. 300.000 €
4. fasea: tenis eta frontoiko zaharberritzea, urbaizazioa eta itxitura. 300.000 €
5. fasea: bulegoko eraikina, Finish-Dorrea, biltegiak eta tabernaren e struktura. 140.000€

GUZTIRA: 1.788.570€ (Kontrata exekuzioa) = 1.503.000 € + GG +B.I.

Adostutako obren %80 egin eta gero eta, kontuan izanik onartutako kopurua gaintitu dela, eta kontuan hartuz beharrezkoa dela kirol taldearen egoitzaren bulegoak zaharberritzea, **beharrezkoa da**, hasieran adostutako sariak eta zerbitzuak lortzeko oreka ekonomikoa berreskuratzea 2011ko martxoan **sinatutako hitzarmena moldatu** eta duen iraupena luzatzea.

Beraz, hitzarmen berri bat sinatzea proposatu du Kirol Teknikariak. Hitzarmen honen xedea da 2011ko martxoaren 31n sinatutako **hitzarmena aldatzea**, bi helburu nagusiekin:

- a) **Oreka ekonomikoa berrezartzea** hasieran adostutako ezaugarriekin bat egiteko, betiere, hitzarmenaren epea luzatuz.



TOLOSAKO
UDALA

b) Udalak Tolosa CF taldeari banatzen dizkion ekarpen ekonomikoak hitzarmenetik ateratzea aplikagarriak ez direlako. Diru ekarpen horiek, batu eta antolatuko dituen izenpeko hitzarmen berri batean osatuz.

Hitzarmen horretan, Tolosako udalak honako obrak egiteko konpormisioa hartuko du: Klubaren bulego-erakinaren zaharberritzea eta Frontoiaren zaharberritzea.

Klubaren eraikin zaharraren bulegoen zahar berritzea eragiketaren ondorioz, hasieran adostutako hitzarmenaren epea 2059ko martxoaren 31 arte luzatuko da, edo jarraian aipatzen den ratioaren arabera kalkulatu da, obraren likidazio-kostua hasieran aurreikusitakoaren ezberdina bada.

Aipatutako interbentzioari frontoiaren exekuzioa erantsiko balitzaio xedapen honetan esaten dena aplikatuko da.

Honako inbertsioa/urteko berdintasun erregela aplikatuko zaie:

46.317€/urteko kontratua handitzea.

- Hitzarmenaren Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena

Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.
- udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- udalen eskumenen egikaritzea ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gainera bat osatu zuen, non udalek berariazko eskumenak egikaritzeko baitzituzten. Gai horien artean, 25.2 artikulua 1) atalari udalek, besteak beste, "kirol sustapena eta kirol ekipamendu" arloan eskumenak beteko dituztela xedatzen du, betiere, Estatu eta Autonomia Erkidegoko legedian ezarritako moduan.



Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 25. atalean, kirola eta kirolari buruzko ekipamenduari buruzko politikak sustatzea, hain zuzen ere.

Era honetan, Tolosako udalak ematen dituen kirola eta kirol ekipamenduak sustatzeko zerbitzuak, batetik sustapeneko udal eskumenak dira, eta bestetik, lan arloko legeriaren exekuzioaren ikuspuntutik hartuta, autonomia erkidegoaren ahalmenaren delegazioz eskaintzen diren zerbitzuak izango lirateke, hori dena Euskadiko Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren 10.36 artikuluan xedatutakoaren arabera: *Euskal botere publikoek, eskumen eskusiboa dute kirol, aisia eta atsedean arloetan.*

Bestalde, Euskal Herriko 14/98 Legeak, ekainaren 1ekoak, kirola interes orokorreko jarduera dela ezarri du. Hala, Herri Administrazioek bultzatu beharreko jarduera da, eskumena duten alorretan; izan ere, Lege horrek finkatutako helburuak lortze aldera, Herri Administrazioek eskumena dute entitateek lan egin dezaten laguntzen sistemak jartzeko. Lege horren 6. artikulua kirol politikak duen toki dimentsioa jasotzen du, ondokoaren arabera:

“EUSKAL HERRIKO 14/98 LEGEA, EKAINAREN 1EKOA” 6. artikulua

Artikulu honek honela dio:

Udalei dagokie, zeini bere lurralde-esparruan, eskumen hauek betetzea:

- a) Lurralde historikoetako foru-organismoek onartutako eskola-kiroletako programak burutzea, haiekin koordinatuta jokatu.
- b) Udalaren kirol-ekipamenduak eraikitzea, zabaltzea eta hobetzea, eta orobat kudeatzea eta mantentzea ere.
- c) Kirol-ekipamenduen hirigintza-plangintza egiteko tresnak onartzea eta gauzatzea.
- d) Udalaren kirol-ekipamenduen erabilera arautzeko ordenantzak onartzea.
- e) Lurralde historikoetako foru-organismoek kirola herritar guztientzat zabaltzeko onartutako programak gauzatzea.
- f) Udalaren kirol-ekipamenduen errolda bat onartzea eta eguneratzea.
- g) Lege honen, gainontzeko legezko xedapenen eta lege hau garatzeko arauen indarrez dagozkien eskumen eta egitekoak baliatzea, bai eta eskuordetzan eman dakizkiekeenak ere.

Xedapen horiek aintzat hartuta, Tolosako udalak eskumena du kirola eta kirol ekipamenduak bultzatzeko.

Honela, hitzarmenaren arabera, egungo udal kirol ekipamenduak erabiltzeko aukerari handitu eta gobetzeko xedeari erreparatu zion Berazubi estadioa udal kirol eraikinen udal horniduran sartuz. Aukera berria eta zabalagoa eskainiko zaie Tolosako kirol eraikinetako abonatuiei Berazubi estadioa erabiltzeko aukerarekin. “Berazubi estadioaren “kudeaketa eredia Usabal kiroldegikoaren berdina izateko baldintza jarri zen, berrazuzteraz zerbitzu publikoa eta kalitatezkoa. Kudeaketa eredia Usabalgokoa bera izanik, udalak Berazubi Estadioan egingo duen eskuhartzea legitimatuta egongo litzateke goian aipatutako eskumenetan.

Bestalde, apirilaren 18ko 781/1986, Errege Dekretu Legegileak, honela dio bere 111



TOLOSAKO
UDALA

artikuluan: "Las Entidades Locales podrán concertar los contratos, pactos o condiciones que tengan por conveniente, siempre que no sean contrarios al interés público, al ordenamiento jurídico o a los principios de buena administración, y deberán cumplirlos, a tenor de los mismos, sin perjuicio de las prerrogativas establecidas, en su caso, en favor de dichas entidades."

Organo eskuduna.-Plenoa da , Hitzarmen honen bitartez, 2011ko martxoaren 31koa aldetzen delako, oreka ekonomikoa berrezartzea helburu izanik oraingokoa. Beraz, aurreko hitzarmena onartu zuena plenoa izanik, horren aldaketa ere plenoari dagokio.

Beraz, Kirol Teknikariak egindako **proposamena** horrela beharko luke izatea:

Lehena.-Onartzea ondorengo lankidetzaz hitzarmena aldatzea: 2011ko martxoaren 31an Migel Muñoa Fundazio ongile partikularraren patronatua , Tolosako futbol kluba eta Tolosako udalaren artean sinatutakoa.

Bigarrena.-Aldaketa horiek jasotzen dituen hitzarmena onartzea (Txosten teknikoarekin batera aurkeztu da), Alkateari hitzarmen hori sinatzeko ahalmena emanaz

Tolosan , 2018ko urriaren 19an

Administrazio Orokorreko Teknikaria

Karmele Contreras Goikoetxea